
Damaris Pan, Michael Klant, Angela Lopez eta Maitane Azurmendi, margolana egiten, Astrako eraikinean. ANE MARURI ARANSOLO

*Michael Klant artista alemaniarrak Zeru trukaketa proiektua abiarazi zuen Gernika-Lumoko eta Berlingo zeruak elkartzeko; Condor legioko kidea izan zuen aita. Bihar eguerdian, udalerriko zeruan ikusi ahalko da pankarta.*

# Bi zeru lotzeko hegaldia

**–ANE MARURI ARANSOLO**

Goitik iritsi ziren bonbak. Hodei artean zebiltzan Condor legioko hegazkinek jaurti zituzten 1937ko apirilaren 26an, eta sumina eragin zuten gernika-lumotarren eta inguruko bizilagunen artean. Orain, baina, beste errelatu bat kontatzera datoz hegazkinak.

Memoria eta sormena uztartuz, iragana gogoratu eta etorkizunari mezua bidali gura dio Michael Kant artista alemaniarrak bihar, 13:00etan, Bakearen Nazioarteko Egunean. Adiskidetzea gura du, sorkuntzaren bidez bakerantz bideraturiko oroimenezko kultura kontzeptua garatu. Horregatik otu zitzaion zeru trukaketa egitea, «etsaitutako» bi herrien arteko adiskidetza irudikatzeko eta memoria historikoa lantzeko.

Hori horrela, udalerriko zerua irudikatzen zuen 100 metro karratuko margolan bat aireratu zuen Berlingo zeruan apirilaren 26an, bonbardaketaren urteurrenean. Eta bihar, Berlingo zerua jarriko du Gernika-Lumo eta inguruetako herrien gainean.

Bertako artistak bidelagun izan ditu proiektuan, bai eta Gernika Gogoratuz eta Alemaniako Gernika Deutsch-Baskischer Kulturverein taldeko kideak ere. Damaris Pan EHUko Arte Ederretako Fakultateko irakasleagaz, Angela Lopez Gernikako Astrako kideagaz eta Maitane Azurmendi Gernikako Lobak elkarteko kideagaz egon da.

Berotasuna sentitu du udalerrian, eta gustura aritu da bertako artistekin lanean. «Nire lan pertsonal eta politikoena da», aitortu du artista alemaniarrak. Izan ere, Gernika-Lumo bonbardatu zuen Condor legioko kide izan zuen aita, eta denbora luzez sentitu du iragan horren zama: «Behartuta joan zen armadara, 22 urte besterik ez zituela. Derrigortutako soldadutza egin behar izan zuen, eta hasieran hori sinistea ere kostatzen zitzaidan».


*«Astran margotzea oso berezia da; bonbardaketagaz lotura zuzena dauka»*

**Angela Lopez**
*Artista eta Astrako kidea*


*«Bihar zeruan ikusiko den pankartak adiskidetzarako mezua zabalduko du»*

**Maitane Azurmendi**
*Artista eta Lobak taldeko kidea*

Arrazoi pertsonaletan oinarrituta erabaki du, beraz, Gernika-Lumo eta Berlin batzea. Hala eta guztiz ere, zeru trukeen proiektua orain dela urte asko hasi zen lantzen. «Aspaldi hasi nintzen horrelako proiektuak burutzen. Zeruak irudikatzen gutxi gorabehera 20 bat urte daramatzat», dio alemaniarrak.

1999. urtean egin zuen lehen zeru trukaketa Alemania eta Ameriketako Estatu Batuak batuz. Floridan zegoela otu zitzaion ideia, hegazkin batek publizitate pankarta bat zeramala ikusi zuenean. Hala, sormena martxan jarri, eta zeruak pankartetan irudikatzen hasi zen.

Beste herrialde batzuetako zeruak zeruetan jartzea apur bat «zentzugabea» ere badela dio artistak: «Lanek badute euren puntu absurdoa. Zeru zati bat jartzen dugu zeruan! Gustatzen zait hori. Lanak ez du zertan etengabe politikoa izan behar. Ederra da pankarta, artistikoa. Proiektua ezagutzen ez duten pertsonentzat ere polita da margolana zeruan ikustea».

Orduko proiektu haietan, baina, ez zuela «etsaitutako» bi herri adiskidetzeko helburua izan adierazi du, eta ideia hori beranduago hasi zela lantzen aitortu du. Bide hori amaitutzat eman zuenean pentsatu zuen Gernika-Lumoren eta aitaren historia bateratzea.

## Lanketa sakona

Bihar burutuko den proiektua duela bi urte etorri zitzaion burura. Portugalen zegoela Euskal Herria bisitatu zuen, eta orduan erabaki zuen memoria historikoa lantzen zuen bere lehengo lana aurrera eramatea.

Deiak egiten hasi zen, eta artistak elkarlanari garrantzi handia ematen dionez, Gernika Gogoratuzeko kideekin zein bertoko artistekin harremanetan jarri zen. Damaris Pan EHUko pintura irakasleari mezu bat bidali zion artistak, proiektuaren nondik norakoak azaltzeko, eta Alemaniara lehenengo pankarta margotzeko gonbita eginez. «Pankartak benetako zeru itxura edukitzea da nire erronka nagusia proiektu honetan. Lan teknikoa izan da nire betebeharra», aitortu du irakasleak. Errealista izatea da margolanagaz bilatu duten efektua, eta hori margotzen ibili dira Gernika-Lumoko Astran.

Hamar egunetan hamaika ordu sartu dituzte artistek udalerriko kulturarako fabrika sozialean: «Amestu ere egin dugu proiektuagaz». Toki esanguratsu bezain berezian margotu dute, Astra kokatuta dagoen arma fabrika izan baitzen bonbardaketaren ondoren zutik geratu zen eraikin gutxi batzuetakoa.

Arma fabrika zena kultur espazio bihurtu zuten herritarrek, eta proiektu artistikoa bertan margotzea «oso interesgarria» dela deritzo Lopez Astrako kideak: «Proiektua ezagutu nuenean oso interesgarria iruditu zitzaidan. Berlinen ere egon nintzen, baina Astran margotzea berezia da. Gernikarrentzako leku esanguratsua da, bonbardaketagaz lotura zuzena daukana. Hemen gertatutakoa gogoratzeko modu polita ere bada proiektua».

Picassoren *Gernika* margolanaren bariazioak ikusi ahal diren eraikinean lanean egon da baita ere Azurmendi Lobak elkarteko kidea.

Bonbardaketaren ilobak dira, eta gertatutakoaren oroimena bizirik mantentzea da elkartearen asmo nagusienetako bat. Klanten proposamenak erabat egiten du bat euren ideiagaz. «Apirilaren 26an zerutik jaurti zituzten bonbak. Udalerria suntsitu zuten, baina orain zeruan ikusiko den hegazkinak beste modu bateko mezua ekarriko du herrira: adiskidetzearen aldekoa», adierazi du Azurmendik. Eraikinari ere daukan berezitasuna eman dio.

## Sormenagaz bakerantz

Udalerrira iritsi denetik Andreas Schafter izan du lagun Klantek. Gernika Gogoratuzeko kidea da bera, eta hamarkada bat baino gehiago darama udalerrian. Proiektuak Gernika-Lumoko elkartearen asmoekin bat egiten dela aitatu du.

Artelan bat egitean datza proiektuak, baina hori baino gehiago ere badela dio Schafterrek: «Artea, memoria eta bakea batzen eta lantzen ditu». Eta bakea zer den galdetzen dio bere buruari, «amaigabeko proiektua» dela hausnartuz.

«Sortzaileak izan behar gara, bakoitzaren izaerarako ezinbestekoa baita. Sortzaileak ez bagara, gure gizatasuna galtzen dugu. Neurri handi batean, sormena eta sorkuntza landuz besterik ez gara bakera iritsiko, eta bakea izango da gizakiaren artelan erraldoia, artelan amaigabea». Kantek proposatutako ekintzek bide hori egiten asko laguntzen dutela uste du.

Hegazkinak eramango duen pankartak bi herrien arteko adiskitzea islatzen du, baina muga horietatik haratago ere badoa: «Pankarta kulunkan erortzen uzteagaz inbasio artistiko bat egin gura dugu, airetiko balizko suntsiketen kontrapuntu modura. Klantek gaineratu du mugak zeharkatzen dituen ekintza eta gaur egungo bereizte nazionalisten gorakadaren aurkako ikurra ere izango dela.


*«Orain artean egindako nire lanetatik pertsonalena da honakoa»*

**Michael Klant**
*Artista*

**–A.M.A.**

**Zerk bultzatu zizun proiektu hau burutzea?**
Arrazoi pertsonal batek bultzatu nau Gernika-Lumo eta Berlin batzera, izan ere, nire aita Gernika bonbardatu zuen Condor legioko kidea izan zen. 22 urte zituela deitu zioten soldadutzatik, eta hala azaldu zidan txikitan, baina ez nion sinetsi. Urteak joan ahala ulertu dut. Nire lan guztietatik orain arte egindako lanik pertsonal eta politikoena da honakoa.

**Herrialde desberdinetako bi zeru batzen dituzun lehen aldia da honakoa?**
20 bat urte inguru daramatzat zeruak margotzen. Lehenengo proiektuagaz Ameriketako Estatu Batuetako eta Alemaniako zerua batu nituen, eta beste hainbat ere lotu ditut. Zeru horiek, baina, ez ziren «etsaitutako» herrien artekoak izan, eta bi herri aurrez aurre jartzeko proiektuari ekin nion. AEBekin eta Kubagaz ere egin nuen saiakera, baina ezinezkoa izan zen.

**Noiz erabaki zenuen burutzea?**
Orain dela bi urte Portugalen egon nintzela Euskal Herrira etorri nintzen, eta orduan otu zitzaidan ideia izan zen.

**Memoria historikoa lantzen duzun lehen proiektua da?**
Denboraren joanari buruzko ideiak lantzen ditut nire artelanekin normalean, baina memoria historikoa landu dudan bigarren aldia dela esango nuke. Orain dela urte batzuk *Don Quijote* liburuko zenbait pasartegaz egin nuen margolan bat Malagan. Etorkizunari begiratzen zion lana izan zen, hausnarketa bat proposatzen zuena. Memoriaren legearen eztabaida puripurian egon zen Espainian, eta eztabaidarantz bultzatu gura nituen herritarrak. Oraingoan ere, gertatutakoa plazaratuko dugu. Hegazkinak bonbardaketa sufritu zuten leku esanguratsuak zeharkatuko baititu, bakearen aldeko mezua helaraziz.



## Irailaren 25era arte izena eman daiteke udaleko ikastaroetan

**–A.M.A.** *Gautegiz Arteaga*

Herriko bizitza soziokulturala dinamizatzeko eta aisialdi, kirol eta kultur jarduerak herritarrei eskaintzeko asmoz, Gautegiz Arteagako Udalak ikastaroak jarri ditu martxan beste urte batez. Izena emateko epea irailaren 25era artekoa izango da.

Juan Felix Naberan herriko alkatearen berbetan, herritarren eskaeretara egokitzen saiatu dira: «Beste urte batez ikastaroak herritarren beharrizanetara egokitzen saiatu gara, gustu eta adin guztientzat. Biztanleen prestakuntzan eta hazkuntzan eragin gura izan dugu».

Hala, 2019-2020 ikasturtean ikastaroetan parte hartuko duten herritarrek eskaintza zabala edukiko dute aukeran. Umeentzako ingeleseko eskolak martitzen eta eguenetan emango dituzte, 16:30ean hasita. Umeentzako zirkuko eskolak martitzenetan izango dira, 17:00etan eta 18:00etan.

Herriko abesbatzan kantatu gura duenak, berriz, martitzenetan 20:00etan izango du hori egiteko aukera. Eta jostea gustuko dutenak, berriz, eguaztenetan 18:00etan elkartuko dira, Kultur Etxean.

Kirolari dagokionez, hainbat aukera izango dituzte gautegiz arteagatarrek. Pilateseko ikastaroak martitzen eta eguenetan emango dituzte; 17:45etik 18:45era edota 18:45etik 19:45era. Mantenuko ariketak eta yoga astelehen eta eguaztenetan izango dira, 17:00etan eta 18:15ean, hurrenez hurren. Eta *zumba*-koak astelehenetan 18:30ean eta eguaztenetan 17:30ean egingo dituzte.

### Gutxieneko parte hartzea

Udal arduradunek zehaztu dutenez, ikastaroak egin ahal izateko gutxienez zortzi ikasleren izen ematea nahitaezkoa izango da ikastaro horiek aurrera eramateko. Saioak urritik maiatzera artekoak izango direla zehaztu dute, gainera.

Udalerriko ikastaroetan parte hartu gura dutenek Kultur Etxean eskatu dezakete izena emateko orria, baita udalaren webgunean ere: *www.gautegizarteaga.com*.

# Musika lanak publikatzeko diru laguntzak eskaini ditu Kultur Etxeak

3.000 euroko laguntza banatuko dute eskatzaileen artean; baldintza batzuk bete behar dira • Eskaera urriaren 18a baino lehen aurkeztu behar da Kultur Etxean

**– ANE MARURI ARANSOLO**
*Gernika-Lumo*

Udalerriko musika ekoizpena bultzatu asmoz, Gernika-Lumoko taldeei bideratutako 3.000 euroko diru laguntza eskainiko du Kultur Etxeak bigarren urtez jarraian; iaz bost proposamen aurkeztu zituzten. Ohiko laguntzetatik kanpo ematen den zerbitzua dela gogoratu dute arduradunek.

Gernika-Lumon hogei bat musika talde daudela gogorarazi dute, eta abesbatzak, trikitilariak, txistulariak, bandak zein bakarkako hainbat abeslari ere badaudela gehitu dute. Hain zuzen, esparru horretara zuzendutako musikarientzako da Kultur Etxeak eskainitako diru laguntza. Izan ere, diskoak grabatzea izaten da askotan taldeen helburu nagusia, eta horiek argitaratzeko zailtasun tekniko eta ekonomiak edukitzen dituzte.

Herriko sormena ere bultzatu gura dute: «Sormenari eta kulturari susperraldia ematea da diru laguntzen asmoa. Gainera, tokiko musika taldeei ere lagunduko zaie, eta adierazpen berriei ateak irekiko zaizkie».

Laguntzak eskatzeko, ezinbesteko baldintza batzuk bete beharko dituzte eskatzaileek. Gernika-Lumoko taldeen zabalkundea eta sorkuntza denez, ekimenaren helburu nagusia taldeko kideen %50 Gernika-Lumon erroldatua egotea edota bertoko musika guneetako batekin harremana izatea eskatuko dutela adierazi dute.

### Aurtengo argitalpenak

Gainera, aurten diskoak argitaratu dituzten edota argitaratzera doazen taldeei emango zaiela laguntza zehaztu dute. Eskaerak bete eta arauak betetzen dituzten guztien artean banatuko da finkatutako kopurua.

Horiez gain, badaude normalean eskatzen diren administrazio kontuak ere. Kultur Etxean aurki daitekeen eskaera orri bat bete beharko dute, eta horregaz batera, besteren artean NA, bankuko zenbakia eta diskoa editatu den agiria aurkeztu beharko dituzte. Eskaera urriaren 18a baino lehenago aurkeztu behar izango dute.

Gainera, taldeek ongintzako kontzertua eman beharko dute 2020ko uztailean, Seber Altube auditorioan.

Kolegiatu zk. 1804
BIHOTZA
Osteopatia
Fisioterapia
Don Tello, 30 GERNIKA-LUMO 94-603 54 13